

**Bainatzea, uretan
murgiltzea eta igeri
egitea jarduera
freskagarriak dira
eta hagitx
dibertigarriak.**

**Halere,
garrantzitsua da
jakitea jarduerok
arriskuak ere
badituztela.**

**Gida honetan
oinarrizko
gomendioak
aurkituko dituzu
txikienen
segurtasuna
bermatzeko.**

Nafarroako  **Gobierno**
Gobernua **de Navarra**
Babes Zibilerako Zerbitzua
Servicio de Protección Civil



**Uda honetan,
gozatu uretan.**

EZ DAGO HELDU BATEN ZAINITZA-LANA BEZAIN NEURRI EGOKIRIK

Txikienak uretan edo ur inguruan daudenean, heldu bat egon behar da hurbil haiek zaintzen.

Alkohola eta drogak hartuz gero, zaintza-lana hutsaldu egin daiteke.

Umeein hainbat heldu bazaudete, erabaki ezazue nor arduratu den zaintza-lanaz, edo txandak antolatu zaintza egiteko.

Sekula ez utzi haur txikiak beste haur zaharrago baten ardurapean.

Saihets itzazu sakelakoak edo sare sozialek eragiten ahal dizkizuten distrakzioak oro.

Jantzi iezaiezu beti salbamendu-txalekoa adingabeei baldin eta ez badakite igerian, txikiak badira edo desgaitasunen bat badute.

Erne ibili flotatzen laguntzeko elementuekin, arriskutsuak izan daitezke.

Hustu ezazu bainuontzia edo igerileku puzgarria erabiltzez amaitu bezain laster.

Erakutsiezu seme-alabei igerian lehenbailehen.

**Alaba edo semea aurkitzen ez baduzu,
lehenik eta behin bila ezazu
igerilekuan. Segundo oro hil edo
bizikoa da.**



**Inguruan zaintza- eta salbamendu-
zerbitzurik egonez gero, eskatu
laguntza edo bidali norbait laguntza
eske.**

**Halakorik ez bada, deitu 112
larrialdietako zerbitzura.**

IGERILEKU PRIBATUA BADUZU, KONTU HANDIAGOZ IBILI BEHARRA DUZU

Igerileku inguruan erabateko itxitura jartzea da segurtasun neurriarik onena.

Erne ibili txikienak ez daitezen inolaz ere igerilekuaren eremura sartu zaintzailerik egon ezean

Erne ibili txikienak ez daitezen inolaz ere igerilekuaren eremura sartu zaintzailerik egon ezean

Ohiturarik egokiena da aldiro biltzea haurrendako deigarri suerta daitezkeen uretarako eta igeriketarako jostailu eta gauza guztiak, eta igerilekutik eta inguruetatik urruti gordetzea erabiltzen ez ditugunean.

Begiratu ezazu igerilekuaren ura garbi dagoela urte osoan, hondoa argi ikus dadin beti.

Begira ezazu igerilekuko hustubideak ongi daudela